



AIARALDEKO
**EUSKALGINTZA
KONTSEILUA**



BAI WE CAN!

Instituzio publikoetan euskara biziberritzeko konpromisoa

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak martxoaren amaieran aurkeztu zuen “Ez we can´t” kanpaina. Dinamika honen helburua eskualdeko udal-hauteskundeetara aurkezten ziren alderdi eta plataforma politikoei **euskaldunon hizkuntz-eskubideak errespetatu eta euskara Aiaraldean biziberritzeko konpromiso eraginkorrak** eskatzea izan da.

Horretarako, indarrean dauden lege eta dekretuek agintzen dutenari jarraiki, **11 konpromiso hartu eta euren hauteskunde programetan jasotzeko eskaintza** luzatu zien Kontseiluak alderdi guzti hauei. Gure eskualdean hauteskundeetara aurkeztu diren 45 hautagaitza ofizialetatik 31rekin izan ditu Kontseiluak hartu-emanak.

Gaurko agerraldi honetan dinamika honen balorazioa egin, eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluarekin elkarlanean pausu eraginkorrak eman nahi dituzten alderdi eta talde politikoen aitortza publikoa egin nahi dugu, ondorengoak azpimarratuz:

1. Oso balorazio positiboa egiten dugu alderdiek Kontseiluaren eskaerari emandako erantzunaz, eta zentzu horretan, **asko eskertzen dugu, konpromiso zehatzak hartu dituzten alderdi eta taldeek proposamena aztertu, landu eta gaiaren inguruan hausnartzeko hartu duten denbora eta egindako ahalegina**. Zinez eskertzen dugu.
2. Orain arteko hauteskundeetan ez bezala, **euskara agenda politikoan sartu da**, alderdien ahotan eta aztergaien artean egon da, eta are garrantzitsuena dena, talde bakoitzak **hizkuntz-eskubideak errespetatu daitezten eta euskara normalizatze bidean urrats eraginkorrak emateko gogoeta egin du** Kontseiluarekin batera.
3. Konpromiso eskaintza hau, **herrigintza eta instituzioak elkarlanean jarraitzeko lanabes bat izan da, eta izaten jarraituko du**. Norabide horretan, hartutako konpromisoak errealitate bihurtu daitezten, elkarlanean aritzeko konpromisoa berresten dugu, eta udaletako ordezkari berriak hautatu bezain laster jarriko gara horretan lanean. Pausu horiek **egikaritzeko lau urte izango ditugu aurretik, eta epealdi horretan alderdi politikoekin udalez-udal lanean jarraituko dugu**, eta horretarako **lan-esparru berriak proposatuko ditugu**; elkarrekin hausnarketak egiteko, baliabideak proposatu eta bide horretan elkarri laguntzeko, egindakoa baloratzeko, pausu berriak proposatzeko...

4. Balorazio kualitatiboa oso ona da, bai eta kuantitatiboa ere; eskualdeko 9 udalerrietako hauteskondeetara hautagaitza aurkeztu duten **45 hautagaitza ofizialetatik** 31rekin izan ditu hartu-emanak Kontseiluak. 31 hautagaitza horietatik **25 talde eta alderdik konpromiso argiak hartu dituzte Euskalgintza Kontseiluarekin** eta herritarrekin.
5. Era berean nabarmendu eta balioan jarri nahi dugu dinamika honetara modu positiboan batu diren taldeen aniztasuna. **Ia kolore guztietako taldeek hartu dituzte Euskalgintza Kontseiluak proposatutako konpromisoak.**
6. Jakin badakigu, proposatutako konpromisoak hartzea, eta batez ere betetzea ez dela erraza; oztopo asko egongo direla, baliabide falta sarri, errealitate soziolinguistiko zailak... Baina **Kontseiluak balioan jarri nahi du orain alderdiek agertutako borondate politikoa.** Borondate politikoa da, eta izango da datozen lau urteetan ere, aurrera egiteko gako garrantzitsuena eta hori azpimarratu nahi dugu gaurkoan.
7. **Hartutako konpromiso guztiak dira garrantzitsuak Kontseiluaren ustetan; babes handiena duten horiek izango dira legegintzaldi honetan indargune eta lehentasun,** babes zabala baliatuta egikaritzen joan daitezten, urrats atzeraezin bihurtuta. Besteak aldiz, ahulguneak,, betetzen joateko baldintzak sortzen joango gara, alderdiekin hausnarketa ziklo berriak konpartituz.
8. Norabide horretan aurrera egin, eta eskualde luze-zabalean, Arrankudiagatik Urduñara, Orozkotik Artziniegara, Laudio, Amurrio, Aiara, Okondo, eta Arakaldon **euskararen biziberritzeak behar duen herrigintzaren eta instituzioen arteko bide estrategiko partekatua erdiesteko lehen harria** da hau. Agerraldi honetan presente gauden eragile eta alderdi politikoen **bide hori ibiltzeko konpromiso garbia zabaldu nahi dugu** lau haizeetara.

Elkarlana da eta izango da etorkizunean ere euskararen normalizatorako lanabes garrantzitsuena. Gaur eta hemen, Saraubeko mahaiak gure lurraldean duen esangura politikoa gogoan izanda, konpromisoak hartu dituzten talde politikoen aitortza publiko hau egitearekin batera, **Aiaraldean euskarari aro berri bati ateak irekiko zaizkionaren uste sendoa dugu, bide atzeraezin baten lehen urratsak** ematen ari garenera.

Aiaraldea euskaldunaren alde, "bai we can"! Konpromiso eraginkorrak eta elkarlana.

Aiaraldean, **Saraubeko Mahaian,**
2019ko maiatzak 16.

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua

Konpromiso zehatzak hartu dituzten talde eta alderdi politikoak / Grupos y partidos políticos que han adquirido compromisos específicos:

1. Laudioko EH Bildu
2. Laudioko EAJ/PNV
3. Laudioko Omnia
4. Laudioko Elkarrekin-Podemos
5. Amurrioko EAJ/PNV
6. Amurrioko EH Bildu
7. Amurrioko Orain Amurrio
8. Amurrioko GUK Bai
9. Urduñako EH Bildu
10. Urduñako EAJ/PNV
11. Urduñako PSE-EE
12. Aiarako EAJ/PNV
13. Aiarako EH Bildu
14. Aiarako Aiara Batuz
15. Orozkoko Adie
16. Orozkoko EAJ/PNV
17. Orozkoko EH Bildu
18. Okondoko Okondo Aurrera
19. Okondoko EAJ/PNV
20. Okondoko EH Bildu
21. Artziniegako EAJ/PNV
22. Artziniegako EH Bildu
23. Arrankudiaga-Zolloko EH Bildu
24. Arrankudiaga-Zolloko EAJ/PNV
25. Arakaldoko EH Bildu



AIARALDEKO
**EUSKALGINTZA
KONTSEILUA**



BAI WE CAN!

Compromiso para vivificar el euskara en las instituciones públicas

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua presentó a finales de marzo la campaña "Ez we can't". El objetivo de esta dinámica ha sido pedir a los partidos y plataformas políticas que se presentan a las elecciones municipales en la comarca **compromisos efectivos para que se respeten los derechos lingüísticos de los y las euskaldunes en las instituciones, y para vivificar el euskara** en Aiaraldea.

Para ello, y siguiendo las directrices que marcan las leyes y decretos vigentes en nuestro territorio, el Consejo para la Normalización lingüística de Aiaraldea propuso a los grupos políticos 11 compromisos específicos y la solicitud de incorporarlos en sus programas electorales.

Hoy nos hemos reunido aquí para realizar la valoración de esta dinámica y hacer un reconocimiento público a los grupos políticos que han decidido dar pasos eficaces junto con el Consejo.

En ese sentido, queremos subrayar lo siguiente:

1. Hacemos una valoración muy positiva de la respuesta dada por los grupos políticos a la propuesta del Consejo, y en este sentido, **agradecemos feacientemente a los partidos que han adquirido compromisos el tiempo y esfuerzo que han dedicado a examinar, trabajar y meditar dichos compromisos**. Lo agradecemos sinceramente, y queremos ponerlo en valor.
2. A diferencia de citas electorales anteriores, **el euskara ha entrado en la agenda política, ha estado en boca de los partidos y en sus mesas de trabajo**, y lo que es más importante, cada grupo ha hecho una reflexión para que se respeten los derechos lingüísticos y se den pasos eficaces en el camino a la normalización del euskara.
3. **Este ofrecimiento para adquirir compromisos ha sido, y seguirá siendo, una herramienta para seguir trabajando conjuntamente entre ciudadanía e instituciones**. En ese sentido, para que los compromisos tomados se materialicen, ratificamos nuestro firme compromiso de trabajar de la mano y nos pondremos a ello en cuanto se formen las nuevas corporaciones de cada municipio. **Tendremos cuatro años para avanzar en estos compromisos, y durante este periodo de tiempo, seguiremos trabajando con los grupos políticos, ayuntamiento a ayuntamiento, proponiendo para ello nuevos espacios de trabajo en común**; para reflexionar conjuntamente, para que ayudarnos mutuamente en el camino, para proponer estrategias y medidas, para valorar lo hecho, para proponer nuevos pasos...

4. La valoración cualitativa de la dinámica de interlocución llevada a cabo por el Consejo es muy buena, pero también lo es la cuantitativa; **de las 45 candidaturas** que se han presentado oficialmente a las elecciones municipales en los 9 municipios de la comarca, el Consejo ha mantenido contactos con 31. De esas 31 candidaturas, **25 grupos y partidos políticos han tomado compromisos claros con Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua** y con la ciudadanía.
5. Del mismo modo **queremos destacar y poner en valor la diversidad de grupos que se han sumado a esta dinámica de forma positiva**. Grupos de casi todos los colores han adquirido nuevos compromisos.
6. Sabemos de antemano que no va a ser tarea fácil materializar los compromisos que hemos propuesto; nos encontraremos con impedimentos, con falta de recursos, realidades sociolingüísticas complicadas... Pero **el Consejo quiere poner en valor la voluntad política que muestran los partidos en el día de hoy**. La voluntad política es, y será también durante los próximos cuatro años, la clave principal para avanzar en este sentido.
7. En opinión del Consejo **todos los compromisos adquiridos son importantes. Durante esta legislatura serán nuestra prioridad aquellos compromisos que han recibido un mayor respaldo, y nos apoyaremos en esos consensos municipio a municipio** para ir materializándolos, para transformarlos en pasos irreversibles a favor de la normalización del euskara. En cuanto aquellos que han recibido menor respaldo, trabajaremos para crear nuevas condiciones para que hagan camino, compartiendo con los grupos políticos nuevos ciclos de reflexión.
8. Esta es una primera piedra para avanzar en el camino, una primera piedra para formular **una planificación estratégica compartida entre entidades sociales e instituciones públicas**. Creemos firmemente que esa planificación compartida y consensuada va a ser **determinante para la vivificación real del euskara a lo largo y ancho de la comarca**; desde Arrankudiaga-Zollo hasta Urduña, desde Orozko hasta Artziniega, pasando por Laudio, Amurrio, Aiara, Okondo y Arakaldo.

El trabajo común es y será en el futuro también la herramienta más importante para la normalización del euskara. Hoy y aquí, recalcando el significado político que tiene en nuestro territorio la mesa de Saraube, junto con este reconocimiento a los grupos políticos que han adquirido compromisos, tenemos la clara convicción de que estamos abriendo las puertas a un nuevo ciclo para el euskara en Aiaraldea.

A favor de una Aiaraldea euskaldun, "bai we can": compromisos efectivos y trabajo en común.

En Aiaraldea, Mesa de Saraube,
a 16 de mayo de 2019.

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua